



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Enpresa bat sortzea eta aurrez definitzea izan da proiektu honen helburua, eta parte hartu dugunok Oiertzo Batxilergo Ikastolako Olaia Felipe, Hur Leturia, Iraitz Maritxalar, Markel Otaegui eta Maialen Villarreal gara. Mendi bide ezezagunak eta hotelak erakusten dituen aplikazio berritzaile batean oinarrituko da gure enpresa, software librea izango dena. Gainera, gizarte teknologiko honetan batzuetan isolatuta bizi garela dirudienez, aplikazioak mendi bide horiek jende ezezagunarekin egiteko aukera emango du, elkarbizitza sustatuz. Software librea izango denez, edonork ahalko ditu mendi bide berriak igo eta aplikazioa hobetu.

Proiektua gauzatzeko CANVAS metodoan oinarritu gara, pausu ugari jarraituz.



Lehenik eta behin balorezko proposamena egin genuen, non gizarteko beharrak identifikatuz aplikazioaren ezaugarriak definitu genituen. Ondoren, merkatuaren segmentazioan gure bezeroak zeintzuk izango diren aurreikusi genuen, eta funtsezko elkarteetan aplikazioa garatzeko zein erakunderekin elkartuko garen pentsatu

genuen. Irabazi iturrietan, berriz, dirua nondik lortuko dugun definitu genuen, eta kanalen atalean produktua non salduko genuen aurreikusi genuen, irabazi iturriak eduki ahal izateko. Gero, bezeroekiko edukiko ditugun harremanak pentsatu genituen, hau da, nola lortuko dugun euren iritzia jasotzea eta nola lagunduko diegun produktuarekin arazorenbat badute. Funtsezko baliabideetan enpresa hasi aurretik beharrezkoak izango zaizkigun baliabideak ikusi genituen, eta taldekide bakoitzari egiteko bat egokitu genion. Funtsezko jardueren atalean produktua garatzeko egin beharko genituen jarduerak esan, produktuak izan ditzakeen arazoak aurreikusi eta hauei konponbideak proposatu genizkien. Azkenik, enpresak edukiko dituen kostuak definitu genituen, irabazi iturriekin konparatu ahal izateko.